

# Euskal Hezkuntza Sistemari begirada bat kanpotik<sup>1</sup>

*F. Javier Murillo*

Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila  
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

**GAKO-HITZAK:** Euskal Herria. Hezkuntza Sistema. Hezkuntzaren Kalitatea. Adierazlea.

## 1. Aurkezpena

Dakizuenez, istorio hau 2002ko ekainaren azken egunetan hasi zen Miramar Jauregian. Izan ere, han nintzen ekaineko egun haietan, pare bat hitzaldi eman behar nituelako EHUKo Udako Ikastaroetako «*Eskolako Giroa eta Kultura*» Mintegian. Lehen hitzaldia bukatutakoan, noiz edo noiz gertatu bezala, kazetari batek elkarrizketa bat eskainiko ote nion galdetu zidan. Zergatik ez? Esan eta egin. Elkarrizketan eskola eta gelako giroaz, eskolaren eragin-kortasunaz, gelako biolentziaz eta beste hainbat gaiz mintzatu ginen, bestela esanda, nire hitzaldian aztertutakoak jorratu genituen. Horretan geundela, gelako biolentzia aipatzean, hauxe galdetu zidan: hain ikaragarria al da euskal hezkuntza sistema? Jakina, galdera horren atzean zenbaitzuek baieztatzen dituzten ideia hauek zeuden: ikastolak terroristen habia direla, *kale borrokan* diharduten gazteek bigarren hezkuntzako irakasleak izutzen dituztela, unibertsitateko irakasle askok bizi nahi badute ihes egin behar dutela...

Une hartan errotik ezeztatu nuen. Esan nion, hemen bertan ikusitakoa eta txosten, ikerketa eta ebaluazioetan aztertutakoa kontuan izanik, bane-kiela EAEko hezkuntza sistema ona dela eta, ez hori bakarrik, ereduzkoa ere badela duen antolaketagatik eta hezkuntza sistemaren alde egin duen apustuagatik.

---

<sup>1</sup> Sarean Elkartearen XIII. Topaketan amaierako hitzaldia. Portalea Kultur Etxea (Eibar). 2002ko azaroaren 20a, ostirala.

Badirudi kazetariari gustatu zitzaiola aparteko garrantzirik (eta muntarik) ez duen aipamen hori, eta bere artikulua izenburuan jarri zuen: *Euskal hezkuntza sistema etsenpluzkoa da eta ereduzkoa estatuko gainerako autonomi erkidegoentzat*. Hurrengo egunean, artean Udako Unibertsitatean nintzela, entzun nuen zerbait, baina zurrumurrua baino ez izan zen.

Handik gutxira hainbat erreakzio piztu ziren, eta gauza xeble bat gertatu zitzaidan. Arabako gobernuaren ordezkariordearen paketetxo bat iritsi zen CIDEn zuzendaritzara, non, nire deklarazioen kopiarekin batera, txosten dibertigarri bat erantsi baitzuten: Santillana argitaletxearen lehen hezkuntzako liburu baten zati bat zegoen fotokopiatutik eta ikerketa «sakon» baten emaitza zuen aldamenean; Santillanaren testuan Espainia eta Euskal Herria hitzak zenbatu omen zituzten. Badirudi Euskal Herriak irabazi zuela lehia bitxi horretan eta, beraz, gobernuaren ordezkariordeak ondorioztatu zuen euskal hezkuntza sistemak ezin zuela inola ere kalitatezkoa izan. Gertakizun bitxia iruditzen zait, argi erakusten digulako zer den hezkuntza kalitatea gure politikarientzat.

Badiotsuet bada, pasadizo hori gorabehera, eguneroko bizimoduarekin jarraitu nuela. Nolanahi ere, kontuak garrantzi handiagoa hartu zuen, Nazioko Egoeraren eztabaidan Rajoy eta Anasagastik «iritzia trukatu» zituztenean. Gobernuko lehendakariordeak esan zuen «euskal hezkuntza sistema hilgarria zela» eta Anasagastik erantzun zion Ministerioko aditu batek Rajoyk berak baino gehiago zekiela eta adituaren iritzi ez zela hilgarria, ezpada ona. Une hartan Rajoyk mingainari eutsi bazion ere, Kongresutik irten zenean zera galdetu zuen ohi duen adeitasunez: «nor da?: lepoa moz diezaiotela» Eta hala egin zidaten. Gero prentsan irten zen afera, elkarriketatu ninduten eta tokiko telebistan atera nintzen... Baina hori beste kontu bat da.

Nire deklarazioen ustekabeko erreakzioak ikusi ondoren, sarritan galdetu diot neure buruari benetan asmatu ote nuen. Ez ote nintzen gehiegi ausartu?, zenbateraino da ala ez da kalitatezkoa euskal hezkuntza sistema?, zenbateraino da egia euskal eskoletako zuzendarien lana ereduzkoa dela gainerako autonomi erkidegoentzat?

Egia esateko, deklarazio biribil hori egin nuenean, artean ez nuen EAEko hezkuntza sistemaren ikerketa sakonik ezagutzen. Era berean, ez nekien kalitatezko txostenik ote zegoen (kazetariren batek hala baieztatu badu ere), Ministerioan ez dagoelako hori jakiterik. Edo norbaitek uste al du Estatuko ikerketa zentroan zerbait garrantzitsua ikertzen denean ikerketa horri zentzura gogorrik ezartzen ez zaiola?

Horrela beraz, deklarazio ikaragarri horiek «ezkutuko ideia» batean oinarritzen dira, izan ere, denboraren poderioz bildutako iritzi multzo bat da, kopuru edo datu bakar batekin nekez argumenta daitekeena alegia. Hitzaldi honetan aukera izan dut nire hausnarketak sistematizatzeke, adierazleak berrikusteko, txostenak berriro irakurtzeko eta esandakoen egiaztasuna behar bezala epaitzeko.

Gauzak horrela, aukera bi ditugu: euskal hezkuntza sistema bereziki ona ala bereziki txarra da, Rajoyk esan bezala? Beharbada bada hirugarren aukera bat ere. Prentsak kargutik kendu nindutela argitaratu eta gutxira, ikastaro bat egon zen Ministerioan Hego Ameriketako irakasleentzat. Kontu honen berri zekien irakasle batek zera galdetu zion hezkuntza sistemari buruz mintzatzen ari zen goi kargu bati: «Euskal hezkuntza sistema ona dela esaten dute, egia al da hori? Goi karguak honela erantzun zion: “Ez, autonomi erkidego guztiek dute hezkuntza sistema bera, guztiek dituzte ezauzgarri berberak. Berdin-berdinak dira denak”».

Pasadizo hori kontatu zidatenean, harriturik geratu nintzen, zeren egia baita EAE desberdina dela, eta horretan ez dago zalantzarik. Estatistikariok *outlier* bat dela esango genuke, hau da, adierazle gehienek erakusten diguten bezala EAE gainerako subjektuetatik erabat desberdina da. Horrek, *a priori*, ez du ona edo txarra denik esan nahi.

Euskal hezkuntzaren «bitxikeria» horri jarraiki, hona hemen adibide bat: EAEk du hezkuntza sistemarik feminizatuena, esan nahi baita, beste autonomi erkidego batzuetan baino emakume irakasle gehiago dagoela. Ez dakit hori ona ala txarra den, datu objektibo bat besterik ez da... eta estatuan zeharo betetzen diren «lege» horietako batean oinarritzen da: zenbat eta handiagoa izan autonomi erkidego bateko garapen ekonomikoa, hainbat eta emakume gehiago dago irakaskuntzan. Ildo horretatik, beste muturrean daude Andaluzia eta Extremadura<sup>2</sup>. Ez dut besterik esango.

Bada beste elementu bereizgarri bat, izan ere, irakaskuntza pribatuak pisu handia du euskal hezkuntza sisteman. Badakit publiko-pribatu dikotomiak ez duela balio EAEn eta, era berean, badakit eredu bi baino gehiago dagoela. Nolanahi ere, euskal sistemaren *outlier* posizioa adierazten duen beste adibide bat da.

Dena dela, oso larria izango litzateke hezkuntza sistema guztiek bere horretan jarraitzea, duela hogeitun urte esleitu zitzaizkielako hezkuntza eskumenak EAE eta Kataluniari. Iruditzen zait hogeitun urte hauetan autonomi erkidego bakoitzak bere bidea aukeratu duela eta horregatik hasi direla batzuk besteengandik bereizten. Eraitza desberdinak dituzte, baina, era berean, prozesu, ibilbide, alternatiba eta erabaki desberdinak dituzte.

Horrela beraz, argi eta garbi daukat EAE besteengandik bereizten dela; desberdina dela uste dut, oso desberdina, baina, nire aburuz desberdintasun horiek ezin zaizkio garapen ekonomikoari soilik egotzi, EAE bosgarren autonomi erkidegoa delako BPGren zerrendan (Madril, Katalunia, Nafarroa eta Errioxa ditu aurretik —duela urte batzuk arte Balear Irlak zeuden bosgarren postuan). Hau da, EAEn desberdintasuna ez datza aberastasunean, zeren Madril ez baita inongo adierazletan nabarmentzen eta, gainera, autonomi erkidego «arrunta» dela esan dezakegu.

---

<sup>2</sup> EAEn unibertsitatetik kanpoko Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan emakumeen kopurua %68,5koa da; Extremaduran, berriz, %58,9koa eta Andaluzian %56,6koa.

## 2. Hasierako premisa bi

Zuen hezkuntza sistemari buruz uste dudana azaldu baino lehen, esan behar dut barregarria iruditzen zaidala nire ausarkeria hau, hau da, nola bururatzen zait hona etorri eta *zuen* sistemaz jardutea, bereziki Madrildik natorrela jakinik, eskerrak ez naizen Ministeriokoa, bestela... Izanak izan, eta akats ugari egingo ditudala jakin arren, nahiago dut arriskua hartu eta hor behean dugun informazioa zuei jakinaraztea. Nolanahi ere, ezinbestez ohartarazi behar zaituztet, datu ekonomikoekin gertatu bezala, une honetan hezkuntzako informazio eta estatistika oso gutxi dugula. Demokraziaren historian sekula ez bezalako zentsura garaia bizi dugu.

MECD-n liburu zentsuratu ugari dugu (harro gaude, horratik). Horietako bat da honako liburu hau. Ziurrenik ezagutuko duzue, paperean saldu ezin bada ere, Interneten eskuragai dagoelako eta, nahi izanez gero, behera karga daitekeelako oso-osorik. *El sistema educativo español 2000*<sup>3</sup> da liburuaren izenburua eta 70eko hamarkadaren amaieratik bizi dugun hezkuntza sistema deskribatzen du. Hezkuntza sistemaren egoera azaltzen dugu, besterik ez. Hala ere, liburuaren inprimaturik eta kalean zegoela —bostehunetik gora orri ditu eta, beraz, oso garestia da—, ministro andreak liburuaren banaketa debekatzea erabaki zuten. Eta hor dago, biltegietan usteltzen.

2001. urtearen hasieran ezarri zen debekua, alegia, Del Castillo ministro andrea iritsi zenean, bera baita aitzindaria horrelako gaietan. Jakina, galdetu genien ea gauza arriskutsuren bat idatzi ote genuen erabaki hori hartzeko. Eta azkenean ondorioztatu dugu liburu honetan hezkuntza sistema nolakoa den azaltzen dugula eta, PPK gobernuan lau urte barrena eman bazituen ere, ez genuela haien inolako aipamenik egin... hain zuzen ere, garai hartan ez zuelako ezertxo ere egin. Bestalde, konturatu ginen ez zitzaizela gustatu liburuaren sintesi lana, erkidegoz erkidego azertu baikenuen hezkuntza sistema. Eta, egia esan, lanak eman zizkigun informazio hori lortzeak: zein den erkidego bakoitzeko kurrikulua, zenbat irabazten duten irakasleek erkidego bakoitzean, zein den lanorduen kopurua, nola deitzen den proiektu kurrikularra (autonomia erkidego bakoitzak berea du), zein den hezkuntza proiektua, zeintzuk programazioak... Lan hau era guztietako publikoarentzat egin bagenuen ere, pentsatu genuen administratzaileei ere interesatuko zitzaizela, zeren sarritan ez baitute terminologia ezagutzen eta zuzendariaren eskumenez jarduten baitute, erkidego bakoitzak bereak dituela jakin gabe... Liburu honetan antzekotasun eta desberdintasun guztiak jaso genituen. Nolanahi ere, liburuaren ez zen banatu eta urte bi igaro dira harrezkero. Gaur egun, askoz zailagoa da emaitzen, ikerketen eta abarren informazioa aurkitzea... eta zaila da, datuak sistematikoki zentsuratzen direlako. Beste adibide bat emango dut: INCEk sekula ez du erkidegoz erkidegoko emaitzarik argitaratu.

---

<sup>3</sup> <http://www.mec.es/cide/publicaciones/textos/inv2000see/inv2000see.htm>

Euskal hezkuntza sistema aztertzen hasi baino lehen, bada aipatu nahi dudan beste zerbait. Berezko optimismo pedagogiko baten jabe naiz eta uste dut gauzak sinetsarazi nahi digutena baino hobeto egiten ari garela. Hasteko, material, baliabide, irakasle, testuliburu, instalazio, teknologia... hobeak eta diru gehiago izanik —sekula ez baita hainbeste diru destinatatu hezkuntzara—, hau da, prozesuko elementu guztiak inoiz baino hobeak badira, nola liteke hezkuntza sistema eskasagoa izatea? Ez du zentzurik.

Bigarrenez, ikerketatik ondorioztatu dugu ikasleengandik hurbilen dagoen hura dela ikasleen emaitzetan eraginik handiena duena. Hau da, zuen ikasleak onak izango badira, irakasleok —zuok— onak behar duzue izan, eta hori politikariek egiten dutena baino askoz garrantzitsuagoa da. Uste dut irakasleen eguneroko lana hobetu egin dela urte eta, beraz, sinetsirik nago gobernu batek nahiz bik nahiz hiru ministrok hanka sartzen badute ere, azken finean, hezkuntza ez dutela eurek egiten, ezpada egunero ikasleekin lan egiten duten irakasle eta zuzendariek. Eta irakasle eta zuzendariak hobetuz doaz egunean-egunean.

Hirugarrenez, beste zerbait saldu nahi badigute ere, eskuar dauzkagun datuek argi erakusten dute sekula baino emaitza hobeak ditugula. *Kalitate Legeak* berak dio Espainiako emaitzak Europako batez bestekoaren azpitik daudela. Hori egia da, baina, egia da baita ere Espainiak sekula ez duela horrelako emaitza onik izan OCDEko gainerako herrialdeen aldean. Gainera, eta hau ez da esaten, Espainia, Eskandinaviako herrialdeekin batera, sistemarik ekitatiboena duen herrialdea da, ikasle aberatsen eta pobreen eta ikastetxe batzuen eta besteen arteko desberdintasun gutxiago dagoelako errendimenduari dagokionez. Eta hori, matematiketako errendimendua gorabehera, oso interesgarria eta aipagarria iruditzen zait.

Bestalde, logikoa baino ez da Espainia batez bestekoaren azpitik egotea errendimenduari dagokionez. Nola ez da egongo, hezkuntzan gutxien inbertitzen duen OCDEko herrialdeetako bat bada? Logikoa da hor egotea: izan ere, eginiko inbertsioa kontuan izanik, tokatzen zaiguna baino goraxea go gaude.

Azkenik, nire optimismo pedagogikoa *Pigmalion efektuaren* —nire kasuan bete den profezia— eragina da, eta irakasle eta ikasleen arteko harremanetara ezeze, zuzendari eta ikasleen, Administrazioaren eta ikastetxeen eta gizartearen eta hezkuntza sistemaren arteko harremanetara ere hedatzen da. *Pigmalion efektuak* dio ikaslea espero duguna izatera iritsiko dela, eta hezkuntza sistema on bat nahi badugu, irakasleek, hau da, inplikaturiko langileek maila ona erdietsiko dutela sinetsi behar dugu. Horrela beraz, asaldatu egiten naiz ministro andreak gure hezkuntza sistema desastre hutsa dela dioenean. Zeren, desastre hori gorabehera, Zeuta eta Melillan ere, badira bultzatu beharreko alderdi positiboak.

Hemendik aurrera nekez entzungo didazue iritzi kritikorik, ondo egin dako lanaren erreferentziak baino ez ditut aipatuko eta.

### 3. Euskal hezkuntza sistemaren datu batzuk

Zein da euskal hezkuntza sistemaren alderdirik garrantzitsuena? Nire ustez garrantzitsuena da apustu handia egin duela bere hezkuntzaren alde, beste edozein autonomi erkidegok baino askoz handiagoa alegia. Hiru elementutan laburbiltzen da esandakoa: lehenik eta behin, gainerako autonomi erkidegoek ez bezala, alderdi politikoen adostasunez sortutako hezkuntza sistema du; gainerakoetan ez dago onartutakoari buruzko adostasunik. Askoz errazagoa da lege bat dekretuz edo inposizioz aurrera ateratzea, adostasunez onartzea baino. Bada, EAEn, hau da, Euskadin, lortu da gutxieneko adostasun hori eta gizarte osoa dago horretan inplikaturik.

Bigarrenez, finantziarioa (zer esango dizuet!). Euskadik hezkuntzan egin duen inbertsio ekonomikoa beste edozein autonomi erkidegok egin duena baino askoz handiagoa da. Askoz handiagoa arlo guztietan: bekak, irakasleen prestakuntza eta abar. Hau da, *esan zertan gastatzen duzun dirua eta zure balore sistema nolakoa den esango dizut*. Badirudi, euskal hezkuntza sistemaren eta Eusko Jaurlaritzaren, hots, EAEn balore eskeman hezkuntza dela lehentasunezkoa.

Hirugarrenez, EAEk estatuko hezkuntza sistema gidatzen duten lau printzipioak lehenetsi ditu, alegia: parte-hartzea, ikastetxeen autonomia, ekitatea eta kalitatea. Badirudi EAE dela LOGSE-ren aldekoena eta LOGSE azkarren martxan jarri duena, gainera, kontuan hartu behar da bere xedapenek LOGSE-ren onespenez handiena jaso dutela.

Hezkuntza sistemaren **parte-hartze printzipiotik** hasiko naiz: printzipio hau Konstituzioan (hitz magikoa) jaso eta hainbat hezkuntza legetan berretsi da (bitxia bada ere, *Kalitate Legeak* hankaz gora botatzen du printzipio hau). Dakizuenez, EAE da Eskola Kontseiluetan guraso gehien duen autonomi erkidegoa, eta horrek hainbat arrisku dakartza. Hala ere, eta hau asko aipatzen da zuzendaritzako adituen batzarretan, zuzendaritza taldea kudeaketako organo kolegiatutzat hartzen duen erkidego bakarra da. Xehetasun hutsak baino ez badira ere, parte-hartze printzipioa indartzen dute.

**Ikastetxeen autonomia** printzipioaz jardungo dugu orain. Printzipio honek lau oinarrizko eremu barne hartzen ditu ikuspuntu teorikotik: autonomia kurrikularra, antolaketa autonomia, finantza autonomia eta langile-kudeaketako autonomia. Espainiar hezkuntza sisteman albo bat utzi dute langileen kudeaketa eta, beraz, Erreforma prozesua beste hiru elementuetan oinarritu da. EAE da ikastetxeei autonomia kurrikularrik handiena ematen dien autonomi erkidegoa, EAEn ikastetxeek bakarrik dituztelako askatasunez erabakitze orduak ... hori garrantzitsua iruditzen zait, Administrazioak ikastetxeenganako konfiantza erakusten duelako. Sarritan, hobekuntza edo aldakuntza programak abiarazi nahi dituzten estatuko gainerako ikastetxeekin lan egin dugunean, arazo handi bat dutela konturatu gara, hau da, ez dute ordu aske edo liberrik jarduerak egin, osatu edota indartzeko... Lanordu bat huts eginez gero, berehala dator ikuskatzailea txarto dagoela eta ez

duela sinatuko esanez. Ikusi dugu ikastetxe askok ez duela legea betetzen, hau da, gauza bat adierazten dute agiri ofizialetan, baina gero beste bat egiten dute. Uste dut, hemen egiten denari jarraiki, garrantzitsua dela ikastetxeei margen handiagoa ematea egokitze arazo horiek konpontze aldera.

Antolaketa autonomiari dagokionez, EAEk, gainerako erkidegoek ez bezala, ez du agintzen ikasketa buruak eta idazkariak gobernu organo izan behar dutenik, aitzitik, askatasuna ematen diete ikastetxeei, horiek edo beste batzuek aukeratzeko. Beste gauza bat da printzipio hori erabat betetzea, baina badirudi hori dela legeak dioena.

Hirugarrena **ekitatearen** printzipioa da. EAE da beka eta ikasketa laguntza gehien eskaintzen duena (azken hauek bereziki). Era berean, eskolatze itxaropenik handiena du sei urteko ikasleen artean: sei urteko ikasle baten eskolatze itxaropena 13,5 urtekoa da, estatuko handiena alegia.

Bestalde, dibertsifikazio kurrikularreko ikaslerik gutxien duen autonomi erkidegoa da, eta alde handiz gainera. Estatuko batez bestekoa %3koa da eta EAEn apenas iristen da %1,7ra. Nik ekitate neurri bat bezala ikusten dut, zeren programa hauek aparteko neurri moduan hasi zitzaizkien aplikatzen sistema arruntean ezin eskola zitezkeen ikasleei. EAEn horrelako programa gutxi abiarazteak zera esan nahi du, apustu handia egin duela irakas-kuntza normalizatu eta konprentsiboaren alde.

Nolanahi ere, badakizue Berme Sozialeko programetan inskribaturiko ikasle gehien duela EAEk; nire ustez, ahalegin handia egin da, ikasle horiek titulurik gabe ez uzteko, prestakuntza egokia emateko eta lan munduan txertatzeko.

Lanbide Heziketaz ere hitz egin beharko dugu. Laguna dut Madrilgo LHko ikastetxe bateko zuzendaria, eta gertatutakoa entzun zuenean deitu eta hauxe esan zidan: begira, ez dakit nola dabilzan gainerako hezkuntza etapetan, baina EAEko LH beste edozein tokitakoa baino askoz hobea da; LHko jardunaldiak antolatzen dituzte urtero; estatuko gainerako guztiak ere joaten gara eta mira eginda geratzen gara, antolaketa eta baliabide oso onak dituztelako eta apustu handia egiten dihardutelako.

Eta **kalitate** elementuei dagokienez? Elementu ugari aipa ditzakegu hemen... EAE da karrera hasieran irakasleei gehien ordaintzen dien autonomi elkarte, eta alde handiz gainera; zerbitzuan hogeita hamar urte emandakoan, desberdintasunak berdinduz badoaz ere, EAEko irakasleek gehiago irabazten jarraitzen dute. Esaterako, irakasle bati unitateko dagokion ikasle kopurua baxuenetakoa da: Lehen Hezkuntzan 18,8 dira (ikastetxe pribatuetan ratio handiagoa dute); eta publikoan 15,9. Eta, hala ere, desabantaila bi dituzte: alde batetik, landa eremuan eskola gutxi dago (herririk txiki- netan ikasle gutxiago dago gelako) eta, bestetik, ikastetxe pribatu gehiegi dago. Bestalde, ikasle/unitate ratioa oso txikia da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Faktore nagusia garapen ekonomikoa balitz, bosgarren postuan egon beharko luke, baina lehen postuan dago. Euskal hezkuntza sisteman bada zerbait besteangandik bereizten duena. Bestalde, garrantzi han-

dia eman diozue irakasleen prestakuntzari eta baliabide eta instalazio onak dituzue, eta horiek ere prozesuko kalitate elementuak dira.

Baina azter ditzagun **emaitzak**. EAE da errepikatzaile gutxien duen erkidegoa eta ikasleen egokitasun tasarik —adina kontuan izanik, dagokien ikasurtean dauden ikasleak— handiena duena; esaterako, 13 urteko ikasleen artean tasa hori %91koa da, gainerako erkidegoetan baino askoz handiagoa eta, eboluzioa aztertuz gero, gero eta handiagoa dela ohartuko gara. Horrek zirikusi handia du beste faktore batekin, alegia, Lehen Hezkuntza dagokien adinean bukatu duten ikasleen portzentajearekin, eta portzentaje hau ere handiena da beste autonomi erkidegoekin konparatuz. Ez dago promozio automatikorik, baina Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen duten ikasle kopururik handiena du (%80 EAEn eta %75 estatuan); era berean, ikasketak 16-17 urterekin uzten dituzten ikasleen kopururik baxuena du, Batxilergoko graduatua lortzen dutenen tasarik handiena, goi mailako LH lortzen dutenen tasarik handiena, selektibitatea gaintzen dutenen portzentajerik handiena... Berririo diot, deigarriena ez da adierazle bakar batean emaitza hobeak izatea, ezpada sistematikoki ikus daitekeela EAE beste mutur batean dagoela, hau da, *outlier* bat edo fenomeno bitxi bat dela. Izan ere, fenomeno bitxia da.

#### 4. Elementu negatiboak

Egia da, era berean, badirela beste adierazle batzuk hain positiboak ez direnak eta beharbada azal diezaguketenak —datu fidagarririk ez badugu ere— ebaluazioetan neurtutako emaitzak zergatik ez diren beste adierazle batzuetan bezain onak; dena dela, ikasleak eskolaturik daude eta nire ustez horixe da adierazlerik onena. Nolanahi ere, kanpotik ikusita, bada beste elementu bereziki deigarri bat, alegia, oinarrizko ikasgaietan dauden irakastorduak, hala nola, matematiketan edota ingurunearen ezagueran.

Argi eta garbi dago denbora dela errendimenduari erlazio estua duen faktoreetako bat. Ikasleak ez dira ez argiak ez tentelak; anglosaxoiek dioten moduan, azkarrak edo motelak dira. Beraz, ikasle guztiak irits daitezke dagokien mailara, behar duten denbora ematen bazaie behintzat. Ikastetxeen autonomia maila (210 ordu libre dituzte beren erara moldatzeko) eta hizkuntza (ordu asko eskaini beharra bigarren hizkuntzari, bigarren hau zeinahi izanik ere) kontuan izanik, EAeko matematikako orduak gainerako autonomi erkidegoetakoak baino askoz gutxiago dira. Lehen Hezkuntzan matematikako 210 ordu dago EAEn eta beste autonomi erkidegoetan, aldiz, 350 bat; horrek esan nahi du gainerako autonomi erkidegoek %50 baino gehiago dutela matematikako orduak dagokienez. Horrela beraz, EAek nekez lortuko du errendimendu handia ikasgai horretan. Ingurunearen ezaguerari dagokienez, egoera are larriagoa da, 175 ordu dituztelako, gainerakoen 350 orduen aldean. Uste dut haxe dela EAEn atzeragarri nagusia eta, beraz, errendimenduari dagokienez gainerako erkidegoengandik urrun dezakeen faktorea.



Baduzue beste arazo handi bat ere, alegia, hezkuntza pribatuarena, zuen diruaren zati handi bat hartzen duena; diru asko destinatzen da hezkuntzara, baina, bestalde, egia da gainerako autonomi erkidegoetan baino askoz diru gehiago ematen diezuela ikastetxe pribatuei. Hezkuntza pribaturako diru gutxiago destinatuko balitz, ziurrenik hezkuntza sistemak emaitza are hobek izango lituzke.

## 5. Ondorioa

Adierazleetan —nagusiki hauetan— oinarrituriko errepasso bat izan da hau. Eta hausnarketa interesgarria iruditu zait, zeren, datuak pixkanaka-pixkanaka aldatuz badoaz ere (oraintxe esan didate 3 urteko haurren mailan irakaskuntza pribatuan baino ikasle gehiago dagoela lehenbizikoz irakaskuntza publikoan), datuok berrikusi ostean ikusi dugu hogeitik gora puntu falta zaizkizuela batez bestekora iristeko. Hau da, gauzak aldatu behar dituzue egoera aldatu nahi baduzue.

Esan bezala, adierazle horiek aztertu ostean, iruditzen zait euskal hezkuntza sistema desberdina dela gainerakoekin konparatuz: gehiago inbertitzen da irakasleen prestakuntzan, ikasle gutxiago dago unitateko, ahalegin handia egin da bekak eskaintzeko, dibertsifikazio kurrikularreko ikasle gutxiago dago, LH ona da, guraso gehiago dago Eskola Kontseiluetan —lelokeria badirudi ere, zuzendariontzat arazoa izan liteke, ez baita erraza gurasoekin beti ondo konpontzea— ... Horrek guztiak adierazten digu EAEko hezkuntza sistema desberdina dela, eta horrexegatik, hain zuzen, uste dut *Kalitate Legeak* beste edozeini baino kalte handiagoa egin diezaiokeela, alderdi on asko erazuziko dizkiolako: eta, jakina, benetan tamalgarria dela iruditzen zait.

Bukatzeko, bi hitz: jarraitu horrela, denborak arrazoia emango dizue eta.

Jasotze-data: 2003-04-10

Onartze-data: 2003-11-10

## *Abstract*

---

*In this article some characteristics of the Basque Education System are analysed, in particular those characteristics which cause the Basque Education System to be considered as an outlier. The starting point of this article are the obstacles that the Department of Education, Culture and Sport place for the knowledge and administration of the figures: the Minister herself has prohibited that any article about the situation in the Spanish Education System be distributed. With regard to the situation in the Basque Autonomous Community (CAV), the following characteristics may be mentioned:*

*the Educational System is regulated by a law resulting from a consensus between political parties, the funds destined for the financing of the Education System are far superior to those destined for other Autonomous Communities and lastly, the CAV has made a clear choice in favour of the LOGSE, prioritising the principles of participation, autonomy of the centres, equality and quality.*

**Keywords:** *Basque Country. Education System. Quality of Education. Indicator.*

---

*En este artículo se analizan algunas características del Sistema Educativo Vasco, concretamente aquellas características que hacen que el Sistema Educativo Vasco estadísticamente sea considerado como outlier. El punto de partida de este artículo son los obstáculos que el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte pone para el conocimiento y gestión de los datos: la propia ministra tiene prohibido que se reparta ningún estudio acerca de la situación del Sistema Educativo Español. En cuanto a la situación de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), se pueden mencionar las siguientes características: el Sistema Educativo está regulado por una ley surgida del consenso entre partidos políticos, los medios económicos destinados a la financiación del Sistema Educativo son bastante superiores a los destinados por otras Comunidades Autónomas y por último, que la CAV ha hecho una clara apuesta a favor de la LOGSE, priorizando los principios de participación, autonomía de los centros, equidad y calidad.*

**Palabras-clave:** *País Vasco. Sistema Educativo. Calidad de la Educación. Indicador.*

---

*On analyse dans cet article quelques caractéristiques du Système Éducatif Basque, concrètement il s'agit d'analyser ces caractéristiques qui font que le Système Éducatif Basque soit considéré d'un point de vue statistique comme outlier. Le point de départ de cet article mentionne les obstacles posés par le Ministère de l'Éducation, de la Culture et des Sports pour la connaissance et la gestion des données. La ministre elle-même a interdit que soit distribuée toute étude autour de la situation du Système Éducatif Espagnol. En ce qui concerne la situation au sein de la Communauté Autonome Basque (CAV), on peut citer les caractéristiques suivantes: le Système Éducatif est règlementé par une Loi issue du consensus entre les partis politiques, les moyens économiques affectés au financement du Système Éducatif sont assez supérieurs à ceux affectés par d'autres Communautés Autonomes et enfin, la CAV a misé clairement sur la LOGSE, qui privilégie les principes de participation, d'autonomie des centres, d'équité et de qualité.*

**Mots clé:** *Pays Basque. Système d'enseignement. Qualité de l'éducation. Indicateur.*

---